

erdiko kaira



Jon Garaño zuzendariaren hitzetan, Interneteko publikoak bideoetan ideia baloratzen du gehienbat, euskarri honetan teknika ez delako bereizgarri.

Ikus-entzunezkoak

Ez dagoela zinema industria egonkorturik Euskal Herrian? Beharbada ez, baina imajinazioa borborka darien film labor eskerga aurki daiteke Interneten. Ezaugarri eta bilakaera propioak dituen komunitate honek sarea bereganatu du indartsu.

Laburraren kontzeptua zabaldu du Internetek

MIKEL GARCIA

YOUTUBE, Euskaltube edota Vimeo. Halako webguneei esker, festibalak ez dira oraintsu arte bezala film laburren irteera bakarra. Digitalizazioa eta baliabideen demokratizazioa medio, ideia onak film bihurtzea ia edonoren esku dago gaur egun. Oztopo handiena gainditzea ere ahalbidetu dute Interneteko gune, foro eta blog espezializatuek: zabalkundea. Zuzendari amateur eta profesionalak bat egiten dute sareak eskaintzen duen zaku zabalean eta guk profil desberdineko hiru egilerengana jo dugu, film laburren online komunitateaz galdetzeko.

Txomin Ayastuy mungiarrarentzat hobya da filmak egitea. Grabatzeko utzi egin behar izaten diote ekipoa eta baliabide eskuragarrienekin egiten du lan. Azken finean, ez dio kalitateari garrantzi berezirik ematen, ideari baizik, eta dirurik gastatu gabe emaitza onak lor daitezkeela dio. Horren lekuko, duela bi urte filmatutako *Garabantzuk* laburra: lagunartean burutu

zuten, unibertsitaterako, bi webgunetara igo eta dagoeneko 2.400 bisita baino gehiago jaso ditu filmak. “Zure lana zabaltzeko primerako tresna da, lagun, ezezagunen eta munduko edozein lekutako pertsonen etxetara iristeko. Denetarik aurki daiteke sarean, ona eta txarra, baina denentzako lekua egotea baikorra da eta gainera blog eta foro espezializatuek bahea egiten lagundu diezazukete, aukeraketa on bat egiten”. Internetek eskaintzen duen erakusleihen erraldoiak jende gaztea obrak sortu eta igoztera motibatzen duela gaineratu du Ayastuyk, eta hori generoa aberasteko lagungarria dela: “Egon daitekeen talentu guztia aprobetxatzea sustatzen du, egile gehiago dagoenez erregistro, estilo, gai... anitzagoak sortzen dira, proposamen interesgarriak, horietako batzuk berritzaileak, eta horrek guztiak ikus-entzunezkoa azkarrago gartzea eragingo du, buru gehiago daudelako horretan pentsatzen”.

Asier Urbietaren errenteriarrentzat ere abantaila handia da sarea. Batik bat publizitatean aritzen da Urbietak, zuzendari laguntzaile, eta bere denbora librean film laburrak egiten ditu. *Pin, pan, pun!*, Andoni de Carlos Yarzarekin batera errodatutako azken lana, 5.000 lagun inguruk ikusi dute Internet bidez eta oinarrian duen gai polemikoak sustatuta (euskal gatazka) iruzkin ugari jaso ditu. “Feedback-a da medio honen ezaugarri positiboetako bat; on-line festibaletan iruzkinak egiten ditu jendeak eta hartu-eman hori probetxugarria da. *Pin, pan, pun!* lanaren harira askotariko erantzunak izan ditugu, harrera desberdina izan du, Interneteko publikoa oso heterogeneoa delako eta bakoitzak gauza ezberdinetan jartzen du arreta: batzuk film laburren mundukoak dira eta kontatzeko moduari garrantzia ematen diote, beste batzuk besterik gabe filma ikustera sartu dira eta ideia dute gustuko...”.

Ikus-entzunezko industrian, ordea, Internet lehiakide deserosoa da hainbatentzat. Urbietak kontatu duenez, euren film laburrei irteera emateaz arduratzen den banatzaileak ez du begi onez ikusi azken lana Youtuben egotea. Izan ere, horren erruz zaila izango du filma telebista kateei saltzea edo festibal batzuetan sartu ahal izatea. “Konturatzeko bazara —dio errenteriarrek—, festibaletan sari gehien irabazten duten bideoak ez daude Interneten, modu horretan jendea behartzen duzulako laburra ikusi nahi badu festibalera joan behar izatera edota DVDa erostera; negozioa dago tartean”. Eta sareaz gain film laburrek gaur egun duten aterabide nagusia eta ia bakarra jaialdiak dira.

Onerako eta txarrerako

Jon Garaño donostiarra profesional aritzen da laburgintzan. Beste lau lagunekin batera sortua duten Moriarti Produkzioak enpresan dokumentalak eta film laburrak egiten ditu batez ere; azkena, 13 sari irabazi dituen *On the line*. Bere aurreko obren antzera, hau ere sarean aurki daiteke, norbere lana ahalik eta gehien hedatzeko asmoa primeran betetzen baitu euskarri honek. “Noski, aldi berean oso zabala da Internet, eta sartzen den moduan obra galdu ere egin daiteke sare globalean; horregatik gune egokietara jo behar da. Azkenaldian sortzen joan diren on-line lehiaketak dira



Goian, Asier Urbietak *Pin, pan, pun!* errodatzen. Interneten sortzen den feedback-a edo hartu-emana nabarmendu du Urbietak. Txomin Ayastuyren esanetan (beheko argazkian), ikus-entzunezkoa azkarrago garatuko da Interneti esker.

“Festibaletan sari gehien irabazten duten bideoak ez daude Interneten, jendea behartzen duzulako laburra ikusi nahi badu festibalera joatera edo DVDa erostera”

Asier Urbietak

nire ustez hobekien eta gehien funtzionatzen duten foroak. Leku serioak dira, iritzi aberatsekin, eta jendeak kritika konstruktiboak egin ohi ditu”, gaineratu du Garañok.

Internetek euskarri gisa dituen mugak kezkatuago daukate zuzendari donostiarra: proiektzioaren ikusgarritasuna galtzen dela dio, laburra pantaila handian ikusteko egina izan bada behintzat. “Interneten baldintza okerragoetan ikusten da filma; kalitatea, irudia, soinua... traketsagoak dira, baina batez ere arreta galtzeko arrisku handia du Internetek, ikusleak ez duelako zinema-aretoan edo telebista aurrean bezainbesteko arreta jartzen”. Hala ere, denborarekin eragozpen teknikoak gaintzen joango direla eta ordenagailuko pantailan ikus-entzunezkoak ikusteko modua aldatuko dela uste du Garañok, Internet begiratzea telebista ikustea bezala izango dela, ez baitu zalantzarik etorkizuna sarean dagoela.

Internerako bideo biribila

Bi eratako laburrak daudela aitortu du egile donostiarra: pantaila handian ikusteko pentsatuak daudenek Interneten ikusgarritasuna gal dezaketela egia da, baina beste batzuk ordenagailurako aproposak dira, ideia edo kontzeptua dutelako oinarri, eta ez hainbeste kalitatea. Garañoren iritziz, Interneteko publikoak gehiago baloratzen du ideia, euskarri honetan teknika ez delako batzuen eta besteen arteko bereizgarri. “Hori ona da, ideiak funtzionatzen badu laburrak harrera ona izango duelako eta finean film baten asmoa istorioa kontatzea da; euskarri oso gardena da, zentzu horretan”. Beste ohar bat on-line pelikulagintzan estreinatu nahi duenarentzat: Interneterako ikus-entzunezkoak motzak izan ohi dira, eta horiek dira arrakasta gehien dutenak, ordenagailu aurrean 20 minututik gora bideoari begira egotea ez baita oso eroso.

On-line lehiaketen deia

Urte batzuetatik, Digital Short Film Festival edota Notodofilmfest gisa-ko film laburren on-line jaialdi indartsuak zinemagintza maite dutenak erakartzeko amu bikaina dira eta sarerako bideo sorkuntza biziki sustatu dute. Euskal Herrian, bi dira mota horretako on-line lehiaketa garrantzitsuenak: EuskoMovie eta Nontzefilmak.

Sarean arrakastatsu

• **Garabantzuk** baliabide gutxirekin grabatu zuen Txomin Ayastuyk. Tonu tragikomikoan, pokerrak harrapatuta bizi den pertsonaia berezi baten istorioa kontatzen du. Pokerreko fitxak ez zeuzkatela-eta, azken orduan garbantzuk erabili behar izan zituzten filmazioan. Hortik jaio zen pelikularen izenburua. Espazio-ontzia eta guzti ageri den zientzia fikziozko lana du orain mungiarrak esku artean: “Absurdoa da gustatzen zaidana”.

► tiki.com/2023



“Txikitako gure esperientzia izan dugu kontuan, metafora bat egiteko: haurrak beti bilatuko du jokia edozein egoeratan, baita baldintza arriskutsuenetan ere”, dio Asier Urbietak. Orain grabitatearen inguruko laburra fintzen ari da: egun batez, protagonista bat-batean alderantziz esnatuko da...

► tiki.com/2024

• **Pin, pan, pun!** lanak euskal gatazka oinarri hartu badu ere, umeez mundua beste era batera ikusten dutela azaltzea da filmaren helburua.

• **On the line** arrakastatsua mugez mintzo da. Muga fisikoez –Mexikoren eta AEBen artean kokaturikoa–, muga formalez –errealitatearen eta fikzioarekin jolasean–, pertsonaiek euren usteei jartzen dizkieten mugez... Muga zentzu zabalean hartu du Jon Garañok, dokumentala eta fikzioa uztartzen dituen istorio gordin eta hunkigarri honetan.

► tiki.com/2025



Eusko Ikaskuntzaren Euskosare ekimenaren baitan, EuskoMovieren lehen edizioa antolatu zuten iaz: bi minutuko gehieneko iraupenarekin, euskal gairen bat oinarri zuten filmak eskatu zituzten. Jasotako erantzun ona ikusita –parte-hartzean nahiz bisitari kopuruan– aurtengo ekainean ziurrenik errepikatu egingo dute lehiaketa. “Bideoak izan daitezke sakelakoarekin grabatuak, argazki kamera digitalarekin edo bideokamerarekin; baliabide gutxi izan arren ideia on batekin edonor izan daiteke irabazle. Hain zuzen, imajinazioa eta adierazpen artistiko berriak bultzatzea da xedea. Halako ekimenek jendearen sormena eta curiositatea esnatzen dute eta erronka polita da bi minututan zerbait orijinala grabatzea”, dio Zoraida Martinez lehiaketako arduradunak.

Nontzefilmak ere berria da, baina Nontzeberri webguneak 2006tik martxan dituen Nontzefilm eta Nontzeflash egitasmoen bateratzea da, zinemako film laburrak eta animaziozkoak uztartuz. Hilaren 28ra arte, gehienez hiru minutu eta erdiko iraupena duten filmak bidal daitezke, animaziozkoak izan edo ez. Helburua, bera: burutazio onak pantailaratzen asmatzen dutenak saritzea eta bide batez geroz eta oparoagoa den laburren komunitate internauta bizirik mantentzea.

Oraindik ez zarela ur hauetan murgildu? Goiko koadroan hiru proposamen: erreportaje honetan elkarriketaturiko zuzendarien azken lanak, dagoeneko Internet zaleen harrera beroa lortu dutenak. Sarean topatuko dituzu. ■



Bermeo

Otsailaren 27tik martxoaren 3ra, Lamera plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!